

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

251. zenbakia

Data 2008-12-31

40640 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK
GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK
1132/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, 346 eredia onartzen
duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.132/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako diru-laguntzen, kalte-ordainen edo laguntzen urteko aitorten informatiboa egiteko erabili behar den 346 eredia.

2001eko azaroaren 21eko 1.163/2001 Foru Aginduaren bidez, onartuta geratu ziren, batetik, entitate publiko nahiz pribatuek nekazari zein abeltzainei eman edo ordaindutako diru laguntza eta kalte-ordainen urteko aitorten informatiboa egiteko erabili behar den 346 eredia eta, bestetik, eredu horretako jasotzaileen zerrenda orrien ordezturako den euskarri magnetikoaren diseinu fisiko eta logikoak. Foru agindu horren oinarria zen 1999ko abenduaren 21eko 117/99 Foru Dekretuak, pertsona eta entitate jakin batzuek Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk garatzen dituenak, VI. kapituluari jasotzen duen informatzeko betebeharra.

Halere, aipatu foru dekretua berriki aldatua du abenduaren 23ko 83/2008 Foru Dekretuak, pertsona eta entitate jakin batzuek Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk garatzen dituen abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretua aldatzen duenak. Hain zuzen, aldaketa horietako bat abeltzaintza edo basogintzako diru-laguntzak, kalte-ordainak edo laguntzak emateaz informatzeko betebeharrari buruzkoa da.

Bereziki, bi aldaketa adierazgarri sartzen dira.

— Alde batetik, aplikazio eremua zabaltzen zaie nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzan aritzen diren entitateei, lehenago pertsona fisikoa bakarrik baitzeuden behartuta; emateko informazioa gehitzen da, laguntza kontzeptua sartzen baita diru laguntza eta kalte-ordainekin batera; eta, azkenik, basogintza jardueraz informatzeko betebeharra gehitzen da.

— Bestetik, diru laguntza, kalte-ordaina edo laguntza eman edo onartzen duen entitatea zer izaerarekin jarduten den informatzera behartzen da, Administrazioari jakinarazi beharko baitio hura berak eman edo onartzen duen edo beste erakunde edo entitate baten kontura egiten duen.

Horiek horrela, beharrezkotzat hartu da 346 eredia nahiz diseinu fisiko eta logikoak aldatzea, aipatu berrikuntzak sartu ahal izateko.

Horren indarrez, hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 346 eredia onartzea.

Bat. 346 eredia onartzen da: «Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako diru laguntzak, kalte-ordainak eta laguntzak. Urteko aitorten informatiboa».

Bi. Aurkezpen modu hauei jarraituz aurkeztu behar da nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako diru laguntzen, kalte-ordainen eta laguntzen urteko aitorten informatiboa:

a) Paperezko euskarria, foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri den diseinuarekin bat etorriko dena. Honela osatuta dago aipatu euskarria:

a') Laburpen orria, bi ale dituen, Administrazioarena eta interesatuarena.

b') Jasotzaileen zerrenda orriak, bina alez ere osatuak, Administrazioarena eta interesatuarena.

b) Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarria. Bere diseinu fisiko eta logikoak foru agindu honetako II. eranskinean ezarritakoak izango dira. Harekin batera, aurreko a') apartatuan aipaturiko laburpen orria ere aurkeztu behar da.

25 jasotzailetik gora duten urteko laburpenak euskarri magnetikoan aurkeztu behar dira derrigorrez.

Gainerako kasuetan, euskarri magnetikoa aurkeztea aukerakoa izango da.

Hiru. Euskarri magnetikoan aurkezten den aitorten informatiboa banakakoa izango da, hau da, artxiboak entitate aitortzaile bakar baten datuak jasoko ditu.

Lau. Aitorten informatiboa artikulua honetan ezarritako eran euskarri magnetikoan aurkezteko ez da beharrezkoa izango aurretik inolako eskaririk egitea.

2. artikulua. 346 eredia aurkeztera behartuak.

Bat. Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako diru laguntzak, kalte-ordainak edo laguntzak eman edo onartzen dituzten entitate publiko nahiz pribatuek aurkeztu behar dute eredu hau. Haiek zuzenean ematen dituztenean nahiz beste entitate edo erakundeen kontura ordaintzen dituztenean aurkeztu behar dute eredia.

Entitate emailearen egoitza Espainiatik kanpo dagoenean, diru laguntzak, kalte-ordainak edo laguntzak haren kontura kudeatzen dituen entitate egoiliarak bete beharko du aurreko paragrafoan aipatu den obligazioa.

Bi. 346 eredian sartzearen ondorioetarako, diru laguntzak, kalte-ordainak edo laguntzak ordainketa-agindua ematen den egunean joko dira ordaindutat. Ordaintzeko agindurik ez badago, ordainketa egiten denean joko dira ordaindutat.

3. artikulua. 346 eredia aurkezteko epea eta tokia.

Bat. 346 eredia urte bakoitzeko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturaletan aurkeztuko da, eta bertan aurreko ekitaldian eman edo ordaindutako diru-laguntza, kalte-ordainak edo laguntzak jasoko dira.

Bi. 346 ereduaren inprimakia paperean, herritarren arretako zerga bulegoetan nahiz Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu ahal izango da.

Hiru. 346 ereduaren euskarri magnetikoa Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu behar da.

4. artikulua. 346 ereduaren euskarri magnetikoak aurkezteko prozedura.

Bat. Euskarri magnetiko guztiak behin-behineko izaeraz jasoko dira beren prozesaketa egin eta egiaztatuak izan arte. Foru agindu honetan ezarritako diseinu eta bestelako berezitasunekin bat ez datorrenean edo haietan jasotako informazioa iristea ezinezkoa denean, aitortzaileari hamar laneguneko epea emango zaio aurkeztu duen euskarri magnetikoaren akatsak zuzendu - ditzan. Egun horiek igaro eta Zerga Administrazioa ezin bada eskatutako datuetara iritsi funtsezko arazoak oraindik hor daudelako, urteko laburpena ez aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako, eta zergapekoari horren berri emango zaio.

Segurtasun arrazoiak direla-eta, euskarri magnetikoak ez dira itzuliko espresuki eskatzen denean izan ezik. Horrelakoetan, edukia ezabatu ondoren itzuliko dira horiek edo beste batzuk.

Bi. Eredua euskarri magnetikoan aurkeztekotan, aitortzaileak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

1. 346 ereduaren urteko laburpen orriaren bi aleak, behar bezala beteak eta izenpetuak. Aleak hartu dituen bulegoak zigilatu eta gero, aitortzaileak interesatuaren orria gordeko du bereztzat, aurkeztu izanaren zurigarrri bezala erabiltzeko.

2. Euskarri magnetikoak etiketa bat eraman beharko du itsatsita kanpoaldean, eta bertan ondoko datu hauek adieraziko dira ordena honetan nahitaez:

- a) Ekitaldia.
- b) Aurkezpen eredu: 346.
- c) Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).
- d) Aitortzailearen deiturak eta izena edo sozietatearen izena.
- e) Aitortzailearen helbidea, udalerrria eta posta kodea.
- f) Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.
- g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiboak euskarri magnetiko bat baino gehiago badu, guztiek sekuentzialki numeratutako etiketa bana eramango dute era honetara, 1/n, 2/n, etab, «n» hori euskarri kopurua izango delarik. Bigarren eta hurrengo bolumenen etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak jartzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Indargabetzailea.

Indargabetuta geratu dira foru agindu honen aurka doazen xedapen guztiak eta, bereziki, ondokoak:

— Azaroaren 21eko 1.163/2001 Foru Agindua, entitate publiko nahiz pribatuek nekazari zein abeltzainei eman edo ordaindutako diru-laguntza eta kalte-ordainen urteko aitortpen informatiboa egiteko erabili behar den 346 eredu onartu, eta eredu horretako jasotzaileen zerrenda orrien ordezturako aurkeztutako den euskarri magnetikoaren diseinu fisiko eta logikoak ontzat ematen dituenak.

— Abenduaren 30eko 1.309/2002 Foru Agindua, hainbat zerga eredu euskarri magnetikoz edo bide telematikoz aurkezteko epea finkatzen duena, 346 ereduaren alderdiei dagokienez.

AMAIERAKO XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Foru agindu hau 2009ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta 2009an aurkeztekoa den aitortenari –2008. urtekoari– aplikatuko zaio lehen aldiz.

Donostia, 2008ko abenduaren 23a.—Peio González Argomaniz, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(9880) (14550)



II ERANSKINA

346 EREDUA ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO AURKEZTU BEHARREKO EUSKARRIAREN DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK.

Hona hemen ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriek bete behar dituzten ezaugarriak nekazaritza, abeltzaintza edo baso jardueretatik eratorritako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzen urteko aitorten informatiboa (346 eredu) aurkezteko:

A) Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrien ezaugarriak.

Disketeak.

3 ½»-koa, alde bikoitzekoa. Dentsitate handia (1.44MB). MS-DOS sistema eragilea eta bateragarriak.

CD-R (Compact Disc Recordable).

Ahalmena: 700 MB-raino.

ISO/IEC DIS 9660:1999 formatua, Joliet luzapena izan edo ez.

Euskarriek fitxategi bakar bat eramango dute, SVXXXX izendatuko dena. XXXX aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak izango dira, eta fitxategi bakar horrek erregistro mota ezberdinak jasoko ditu, B) atalean aipatzen den hurrenkeran.

Fitxategiak diskete bat baino gehiago hartzen badu, behar adinako fitxategitan banatuko da, eta fitxategi partzial bakoitzak honako deitura izango du: SVXXXX.NNN (NNN=001, 002,). XXXX aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak izango dira, eta NNN fitxategiek elkarren segidan izango duten zenbakia, 001etik hasita.

Artxibo partzialen erregistroak osoak izango dira beti, hau da, ezingo da inoiz fitxategia banatu eta fitxategi partzialetan osatu gabeko erregistroak utzi.

Aitortzailearen ekipoak ez badu jarritako eskakizun teknikoetara egokitzeko gaitasunik, Zerga Informatikako unitateburuarengana jo beharko da. Tfno. 943.113.160, 943.113.161, 943.113.282. Faxe: 943.113.305.

B) Diseinu logikoak.

Erregistroen azalpena.

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa: Identifikazio datuak eta aitortenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako Eranskinean aurrerago azaltzen dena.

2. mota: Jasotzailearen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako Eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren arabera izango da 1. motako erregistro bakarra egongo da eta, 2. motarako, berriz, jasotzaileak adina erregistro aurkeztuko dira.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zuzen beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango du (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerretik zuzen beteko dira, zehazirik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zuzen beteko dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak bete gabe utziko dira.

346 eredu jasotzaile berberari ordaindutako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzak zerrendatu behar badira eta, ordainketa horiek gako edo mota desberdina badute, behar adina erregistro beteko dira, eta erregistro bakoitzak gako edo mota berberari dagozkion diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzen datuak bakarrik jasoko ditu.

346 EREDUA

A. 1. motako erregistroa: Aitortzailearen erregistroa.

(Posizioak, izaera eta eremuen azalpena).

— Posizioak: 1.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Erregistro mota.

«1» konstantea.

— Posizioak: 2-4.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Aitorpen eredu.

«346» konstantea.

— Posizioak: 5-8.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Ekitaldia.

Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.

— Posizioak: 9-17.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Aitortzailearen IFZ.

Aitortzailearen IFZ jarriko da.

Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zuzen beteko dira.

— Posizioak: 18-57.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Aitortzailearen sozietate izena edo izendapena.

Sozietate izen edo izendapen osoa jarriko da, anagramarik gabe.

Eremu honetan ezingo da inolaz ere merkataritza izenik jarri.

— Posizioak: 58.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Euskarri mota.

Gako hauetako bat jarriko da:

«C»: Informazioa CD-R batean aurkezten bada.

«D»: Informazioa disketean aurkezten bada.

— Posizioak: 59-107.

Izaera: Alfanumerikoa.

Eremuaren azalpena: Harremanetarako pertsona.

Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:

59-67 Telefonoa: Bederatzi posiziotako eremu numerikoa.

68-107 Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

— Posizioak: 108-120.

Eremuaren azalpena: Zuriak.

— Posizioak: 121-122.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren azalpena: Aitorpen osagarria edo ordezko aitorpena.

Aurkezten dena bigarren edo ondorengo aitorpen bat denean honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:

121: Aitorpen osagarria: «C» bat jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren ordainketak sartzea bada.

122: Ordezko aitorpena: «S» bat jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabetu eta bere osoan ordezkatzeta bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik ordezka dezake.

— Posizioak: 123-135.

Eremuaren azalpena: Zuriak.

— Posizioak: 136-144.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Jasotzaile kopurua.

Jarri zenbat jasotzaile aitortu dituen guztira aitortzaileak 2. motako xehetasun erregistroetan. Jasotzaile bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da. (2. motako erregistroen kopurua).

— Posizioak: 145-162.

Izaera: Alfanumerikoa.

Eremuaren azalpena: Diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzen zenbateko osoa.

Eremu hau bitan banatzen da:

145. zeinua: Eremu alfabetiko hau beteko hau baldin eta ordaindu diren diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzen zenbateko osoa lortzeko egiten den batuketaren emaitza 0 (zero) baino txikiagoa bada (1. motako erregistro honen 146tik 162ra arteko posizioak). Kasu horretan «N» bat jarriko da. Beste edozein kasutan, eremu hau hutsune bat izango da.

146-162. Zenbatekoa: 17 posiziotako eremu numerikoa.

«Eman edo ordaindutako zenbatekoa» eremuetan (jasotzailearen erregistroetako 81etik 94ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarriko da hemen, zeinurik eta koma dezimalik gabe. Jasotzailearen erregistroetan «Zeinua» betetzean (2. motako erregistroaren 80 posizioan) «N» bat jarri bada, batura horretan adierazi beharreko kopuruak totalizatzean zenbateko horiek minus zeinuarekin konputatuko dira.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

146-160: Diru laguntzen, kalte-ordain edo laguntzen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.

161-162: Diru laguntzen, kalte-ordain edo laguntzen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.

— Posizioak: 163-500.

Eremuaren azalpena: Zuriak.

* Kopuru guztiak positiboak izango dira.

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriz beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriz beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

346 EREDUA

B. 2. motako erregistroa: Jasotzailearen erregistroa.

(Posizioak, izaera eta eremuen azalpena).

— Posizioak: 1.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Erregistro mota.

«2» konstantea.

— Posizioak: 2-4.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Aitorpen eredia.

«346» konstantea.

— Posizioak: 5-8.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Ekitaldia.

1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.

— Posizioak: 9-17.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Aitortzailearen IFZ.

1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.

— Posizioak: 18-26.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Jasotzailearen IFZ.

Jasotzaileak Espainian emandako IFZ badu, honela jarri behar da:

Pertsona fisikoa bada jasotzailearen IFZ jarriko da.

Jasotzailea pertsona juridikoa edo errentak esleitzen dituen entitatea denean (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia, etab.), haren IFZ jarriko da.

Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

Espanian emandako identifikazio fiskaleko zenbakiekin bakarrik bete behar da.

— Posizioak: 27-35.

Eremuaren azalpena: Zuriak.

— Posizioak: 36-75.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Jasotzailearen deiturak eta izena edo sozietate izena.

a) Jasotzailea pertsona fisikoa bada, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarriko dira, ordena horretan nahitaez. Jasotzailea 14 urtetik beherako adingabea bada, eremu honetan bere deiturak eta izena jarriko dira.

b) Errentak egozten dituzten entitateak izanez gero, entitatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.

— Posizioak: 76-77.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Probintziaren kodea.

Oro har, jasotzailea bizi den probintziako edo, hala bada, hiri autonomoko bi digitu numerikoak jarriko dira, zerrenda honen arabera:

ARABA	01	LEON	24
ALBACETE	02	LLEIDA	25
ALACANT	03	LUGO	27
ALMERIA	04	MADRIL	28
ASTURIAS	33	MALAGA	29
AVILA	05	MELILLA	52
BADAJOS	06	MURTZIA	30
BARTZELONA	08	NAFARROA	31
BURGOS	09	OURENSE	32
CACERES	10	PALENTZIA	34
CADIZ	11	PALMAS, LAS	35
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
CASTELLO	12	ERRIOXA	26
CEUTA	51	SALAMANCA	37
CIUDAD REAL	13	S.C. TENERIFE	38
KORDOBA	14	SEGOVIA	40
CORUÑA, A	15	SEVILLA	41
CUENCA	16	SORIA	42
GIRONA	17	TARRAGONA	43
GRANADA	18	TERUEL	44
GUADALAJARA		19	TOLEDO 45
GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46
HUELVA	21	VALLADOLID	47
HUESCA	22	BIZKAIA	48
BALEARRAK	07	ZAMORA	49
JAEN	23	ZARAGOZA	50

— Posizioak: 78.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren azalpena: Ordainketa gakoa.

Diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzari dagokion gako alfabetikoa jarriko da, honako honi jarraiki:

A. Jarri gako hau baldin eta diru laguntza, kalte-ordain edo laguntza Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan salbuetsita badago aitortzen den ekitaldiko araudiak hala ezartzen zuelako.

B. Jarri gako hau aurrekoetan sartzen ez diren diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzak direnean.

— Posizioak: 79.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Ordainketa mota.

Jarri dagokion kodea, honako zerrendaren arabera:

1. Dirulaguntza arruntak.

2. Kapital dirulaguntzak.

3. Jasotzailearen nekazaritza edo abeltzaintza jarduerari atxikitako ondare elementuetan kalteak jasateagatik jasotako kalte-ordain edo laguntzak.

4. Jasotzailearen nekazaritza edo abeltzaintza jardueraren ibilgetuko ondare elementuetan kalteak jasateagatik jasotako kalte-ordain edo laguntzak.

5. Jarduera osorik edo partzialki amaitu edo uzteagatik jasotako kalte-ordain edo laguntzak.

6. Aipatu ez diren bestelako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak.

— Posizioak: 80-94.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Ordaindutako zenbatekoa.

Eremu hau bitan banatzen da:

80 zeinua: Eremu alfabetikoa. Eremu hau beteko da baldin eta 346 eredian ageri diren datuen artean jasotzaileak ekitaldiaren barruan itzuli dituen kopuruak sartu badira eta kopuru horiek aurreko ekitaldietan behar ez bezala edo soberan jasotako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzei dagozkienean. Kasu horretan «N» bat jarriko da. Gainerako kasuetan, eremu honen edukia hutsune bat izango da.

81-94. Zenbatekoa: 14 posiziotako eremu numerikoa.

Jasotzaile bakoitzari urtean benetan ordaindu zaion diru laguntza, kalte-ordain edo laguntza-zenbateko osoa jarriko da, zeinu eta koma dezimalik gabe.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

81-92: Diru laguntza, kalte-ordain edo laguntza-zenbatekoaren urteko zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.

93-94: Diru laguntza, kalte-ordain edo laguntza-zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.

— Posizioak: 95-98.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Sortzapen ekitaldia.

Eremu hau honako kasuetan bakarrik beteko da:

a) Aitorpenean zerrendatzen diren diru laguntza, kalte-ordain edo laguntza-zenbatekoaren artean atzerakinengatik ordaindutako zenbatekoak daudenean eta horien sortzapena edo exijigarritasuna aitortzen den ekitaldian ez baizik aurrekoetan gertatu denean. Horrelakoetan, behar diren datuak betetzeaz gainera, eremu honetan sortzapen ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.

Jasotzaile berberari ekitaldi desberdinetan sortutako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzak ordaindu bazaizkio, ordainketa horien zenbatekoa erregistro desberdinetan zehaztuko da, eta horietako bakoitzak ekitaldi bereko sortzapenei dagozkien dirulaguntza edo kalte-ordainak bakarrik jasoko ditu.

b) Eremu hau beteko da, halaber, baldin eta 346 ereduan ageri diren datuen artean jasotzaileak ekitaldiaren barruan itzuli dituen kopuruak sartu badira eta kopuru horiek aurreko ekitaldietan behar ez bezala edo soberan jasotako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzei dagozkienean.

Horrelakoetan, itzulketa bakoitza zerrendatzeko idatziko den gako eta mota, behar ez bezala edo soberan ordaindutako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntza adierazteko bere egunean 346 ereduan erabili ziren berberak izango dira. «Zeinua» eremuan (80 posizioan) «N» jarriko da, «Zenbatekoa» eremuan bere zenbatekoa adieraziko da (81-94 posizioak), eta, «Sortzapen ekitaldia» eremuan itzultako ordainketak zein urtetan sortu diren jarriko da.

Egin diren itzulketak pertsona edo entitate berberarengandik datozenean eta ekitaldi desberdinetan sortutako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzei dagozkienean, ordainketa horien zenbatekoa erregistro desberdinetan zehaztuko da, eta horietako bakoitzak ekitaldi berberari dagozkion diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzen itzulketak bakarrik jasoko ditu.

— Posizioak: 99-155.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren azalpena: Kontzeptua.

Diru laguntza, kalte-ordaina edo laguntza zertarako eman edo ordaindu den adieraziko da. Adibidez: Mahastizaintza behin betiko uzteko.

— Posizioak: 156.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren azalpena: Esku hartze motaren gakoa.

Adierazi behar da zer modutan esku hartzen duen aitortzaileak aitorpenean sartu diren diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzei dagozkienez. Dagozkion kodea jarriko da, zerrenda honen arabera:

1. Bere izenean.

2. Hirugarrenen izenean.

— Posizioak: 157-500.

Eremuaren azalpena: Zuriak.

* Kopuru guztiak positiboak izango dira.

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriz beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak eskuinaldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriz beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.